

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak enpresen gizarte-erantzukizunari buruzko InnovaRSE estrategia 2018an aplikatu duten enpresak aldarrikatu ditu

Ayerdi lehendakariordeak erakundeen berrikuntza sozialarekiko konpromisoa egiaztatzen duen diploma bana eman die 55 konpainiari

Asteartea, 2018.eko abenduak 18

Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik 2018an InnovaRSE metodologia ezarri duten [55 nafar erakunde](#) aitortzeko diplomak banatu ditu gaur eguerdian. Sistema honek Enpresen Gizarte Erantzukizuna pixkanaka-pixkanaka aplikatzea sustatzen du.

Ekitaldian, [32 erakunderen](#) aipamen berezia ere egin da, horietako batzuk sektore publikokoak direlarik, beraien ohiko jardunean gizartearen mesedeko estrategia honekin loturiko tresnak edo esperientzia pilotuak abian jartzeagatik. Enpresen Gizarte Erantzukizuna, "enpresek merkataritza-eragiketetan nahiz solaskideekiko harremanetan gizarte eta ingurumen mailako kezkak beren borondatez kontuan hartzea da", Europako Batzordeak 2001ean emandako definizioaren arabera.

Lehendakariorde ekonomikoak ekitaldia ireki ondoren, Lan Zerbitzuko zuzendari Javier Zubicoak S- estratergiari atxikitako erronketako bat aipatu du: Enpresa Kultura Berria. Horren harira, Lan Zerbitzua da 2018an Nafarroako Gobernuaren aipamena jaso duten erakundeetako bat.

Jardunaldian, halaber, Enpresa Gizarte Erantzukizunaren arloan eta genero-berdintasunean nahiz lana eta familiaren arteko uztarketan 2018an egindako aurrerapenak aurkeztu dira. Horrez gain, EGEa autonomoen jardunean eta sektore publikoan bultzatzeko eta metodologia Europako joera berrien arabera eguneratzeko lanak aurkeztu dira.

Foru Gobernuak sortutako InnovaRSE kudeaketa-sistema iraunkortasuna etengabeko hobekuntza-prozesuaren barnean sistematikoki sartzeari errazten duen tresna bat da. Enpresei laguntzen die erantzukizun sozialeko alderdiak beraien epe ertain eta luzeko estratergian jasotzen, bai eta epe laburreko eguneroko lanean ere.

Zehazkiago esanda, hamar alderdi lantzen dira enpresako hiru



Ayerdi lehendakariordea eta Izaskun Goñi, saritutako enpresen ordezkariekin.

dimentsiotan: ekonomikoa, ingurumenekoa eta maila sozialekoa. Metodologiak lau fase hartzen ditu: enpresaren egoeraren diagnostikoa osatzea Enpresako Erantzukizun Sozialaren arloan, jarduera-plan bat idaztea eta ezartzea, iraunkortasun-memoria lantzea eta hobekuntza-zikloak egitea.

Nafarroako ia 400 enpresa eta erakunde (386, zehazkiago esanda) inplikatu dira InnovaRSE programaren alderdietako batean 2009an inplementatu zenez geroztik.